

# Ez ukitu nire prostata, zaindu osasun publikoa

Parisko Bobigny maiatzaren 3 eta 4an Frantzia osoko zientzako batzorde bat medikuek eztabaidatu dute gizakiaren osasuna artatzearen aitzakiaz garatu den fenomeno kasik kontrolaezin batez: gehiegizko (eta gutxiagizko) medikalizazioa, diagnostikoa eta tratamendua. Gizakiaren autonomia eta osasungintza publikoaren finantzak arriskutan daudela zioten denek.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

GERARD DELEPINE ZIRUJAUAK ZALANTZARIK gabeko bukaera eman zion “Prostatoko minbiziak PSA bidez prebenitzea: eskandalo finantzarioa, giza hondamendia” hitzaldiari: “PSAren analisiak debekatu beharra dago”. Geroxeago, bazkaritan kazetari honek alboan zeuzkan bi medikuei kontatu zien Euskal Herrian gehienak harritu egingo zirela horrelakorik leituta. Haiek bai harritu ziren: “Baina, gizona, prostatoko minbiziaren prebentzio hori hemen aspaldi dago zalantzan jarria!”.

Frantzian izango da, zeren eta Espainian, Hego Euskal Herri espainiartua barne, jendearen eritasunekin sensazionalismotan ari

zarella usteko baitute askok. Nola jarri zalantzan prostatoko kantzerraren prebentzio kanpainak, are gutxiago emakumeen bularreko minbiziaren bila egiten diren mamografia galbaheketa masiboak? Oraintxe eskuratu ditugu-eta eskubideok!

Eta hala ere, mediku alternatiborik ez zen Bobignyko bilkurretan, Paris XIII unibertsitatean, koordinatzaile gehienak ziren mediku erretretadunak, bata medikuen elkargoaren etika batzordeko buru izana, bestea minbiziaren kontrako institutuko zuzendaritzakoa... Medikuntzaren merkantilizazioa aztertzeraz bilduak ziren bigarrenaz: pertsonaren gehiegizko medikalizazioa, gehiegizko diagnostikoa eta tratamenduak, eta horien ifrentzua, alegia herritar gero eta gehiagok nozitzen duen gutxiagizko artapena. Duela aste batzuk Net Hurbil batean aipatu bazen mamografiaren eztabaida (2363 zbkia.), prostatoren prebentzio kanpainaren eskandalua izan daiteke multinazionalen giza osasunaren gainean hartu duten kontrolaren adibide odoltsua.

## “Touchez-pas à ma prostate”

Delepine doktoreak kopurua jarri zien Frantzian ezaguna den “Ez ukitu nire prostata!” kanpainaren argudioei: “500 milioi euro alferrik galtzen ditu urtean Frantziak jendea mutilatzeko”. Mutilatzeko?

Mediku askoren erreferentzia den Formindep (“Gizakien osasunaz beste interesik gabeko formazio eta informazio mediku baten alde” dio goiburuan) erakundeak bere webgunean dauzkan dokumentuen artean, batek laburbiltzen du familiako medikuak 50

BENOIT TESSIER



Didier Sicard doktoreak (François Hollande presidentearekin 2012an) zabaldu ditu Bobignyko jardunaldiak.


urtetik aurrerako gizon bati esan beharko liokeen aholkua: “Nire gomendioa jakin nahi baduzu, estrategia erraza da: test horietatik onura baino kalte gehiago etorriko zaizkizu. Hori da Frantziako Osasun Agintaritza Gorenaren iritzia, AEBetakoarena, eta munduko aditu elkarte askorena. Nik ez dizut esaten ez duzula edukiko prostatako minbizirik: gizonen %3 hiltzen dira horretatik. Zorionez adin handiko gizonak harrapatzen ditu: 80 urtekoak batez beste, 70 azpitik %0,1 baino ez ditu hiltzen.

Osasungintzako agintariak bezala ni ere ez naiz fio froga horiez, ez ditu biziak salbatzen (...). Aldiz, kanpaina horrek eragiten ditu batzuetan ezintasun sexualak eta pixa-jarioa adin gazteko gizonengan, prostatako biopsien-gatik eta beste tratamenduengatik sortzen diren istripu larriagoez gain”.

## Jende sanao operatzen

Urologo asko diren moduan PSA proteinaren (prostatako minbiziaren zelulen adierazgarritzat jo izan den markatzaile polemikoa) eta horrekin batera behatzez prostataren handitasuna ukitzearen aldekoak, horrek minbizia goiz hautematea dakarrelakoan, gero eta mediku gehiago daude kanpaina horien kontra. Hauen ustez estatistikek erakusten dute hilkortasun tasa ez dutela horiek gutxitzen, eta, ordainetan, osasun oneko gizon askoren bizi-modua hondatzen dutela. Askok aipatu da prostatako operazioagatik ahalmen sexuala galdu duten gizonen eta pixa kontrolatu ezin dutenen kasua. Baina askoz urrunago doa arazoa, Bobignyn salatu zenez.

50 urtez goitiko gizon askoren prostatetan aurki daiteke kantzer-zelu-



Prostatako kantzerraren prebentzio masiboen kontrako eta aldeko medikuen kanpainak. Goikoak: “Gogoia dut oraindik luzaz egin dezagun amodioa! Arren, ez egin testa”. Behekoak: “Ez utzi pasatzen behatz puntan daukazun diagnostikoa”.

## Laborantza ekologikoko barazkiak eta fruituak

- Laborantza ekologikoan espezializatuak
- Kosmetika ekologiko eta naturalak
- Tratamentuak
- Bertako barazki eta fruitu ekologikoak
- Zeliakoentzako elikagaiak
- Argaltze terapiak
- Naturopatia eta masaje teknikak



belagorri

Zamakoia 9 · 48960 Barakaldo · ☎ 94 600 21 12 · belagorri@hotmail.com · www.facebook.com/belagorri.herboriesterias

## HIPER-MEDIKALIZAZIOA



Emakumeen artean bularreko minbiziaren prebentziorako mamografia bidezko txeko masiboak sustatzen dituzten kanpainen bi adibide.

Community Healthcare Network

Women Age 40+  
*Think Pink!*

**FREE Mammograms!**

Mammograms Performed by Project Renewal

Dates Throughout 2013:  
February 28, August 29, September 26, November 21

Time: 9am - 4pm

CHN Family Health Center  
90-04 161st Street  
Jamaica, NY 11432  
Phone: 718.523.2123

Walk-Ins Welcome

laren bat, 60 urteko gizonen erdientan. Baina horietatik batzuk bakarrik bilakatuko dira tumore, hauetatik batzuk garatuko eta azken hauetatik bakan batzuk suertatuko hilgarri. Dio Formindepek: “PSAren aurreikuspen ahalmena %30ekoa da, erran nahi baita PSA ‘ez-normala’ daukaten 100etik 70ek ez daukatela inolako kancerrik”.

Bobignyn mintzatu zen Yver mediku anato-patologo gaztea. Espezialista hau baita zirujauk bidaltzen dizkioten muestrak analizatzen dituen, kantzerrik baduten eta izatekotan zein motatakoa esan dezan, Yverrek esplikatu zuen gero eta gehiago iristen zaiz-

**Yver anato-patologoak esplikatu du zirujauk gero eta gehiago bidaltzen dizkiotela analizatzera minbizi gabe operatutako organoak edo gaixotasun azterna oso txikiak dauzkatenak: “Jende sanoa ari gara operatzen”**

kiola prostatak eta baita bestelako organoak ere erabat sanoak. Beste askotan, tumoreen tipoko zelula bakan batzuk dauzkate... “eta horiek nola izendatu?” galdetzen zion bere buruari ozenki. Eta ororen buru, salan onkologo bati entzuna ziolarik demostratuta dagoela zenbait tumorek berez egiten duela atzera, berez sendatzen dela alegia... “azkenean ohartzen zara gero eta gehiago jende sanoa ari garela operatzen”.

### Osasunaren merkantilizazioa

Prostatiko minbiziaren txekoa, bularreko minbiziarena, kolesterola dela eta masiboki kontsumitzen diren botikak... Mendebaldeko medikuntzak azken hamarkadotan hartu duen bide okerraren sintomak baizik ez dira Bobignyn bildutako medikuentzat, eta mundu osoan salaketan ari diren beste askorentzako. Zer salatzen dute?

Ekonomiaren eta bizi sozialeko gainerako alorretan bezala, osasunaren kudeaketaren jabe korporazio handiak egin dira. Medikuntza eta oro har osasun zerbitzuak ez dira honez gero gaixo dauden jendeak artatzeko hauen osasun beharrekin eta batez ere beldurrekin negozio egiteko jarduera merkantilak baino. Horrela mintzo zirenak ez dira mediku gazteak, edo aktibista alternatiboak, hitzok eta gordinagoak esan zituen sarrerakoan Didier Sicard (1938) doktoreak, Frantziako medikuen etika batzordeko presidente izana Jacques Chiracek izendaturik.

Farmaziako multinazionalen beren interes arabera aldarazi dute osasun sistema osoa. Kimika eta energia alorretan ere ari diren konpainia erraldoiok kontrol kasik erabatekoa daukate. Edozein lege aurrera atara bezala oztopatzeko lobbyak mugiarazten dituzte. Marketin adar gogorrez aldarazten dute iritzi publikoa. Saltzaile armada baten bidez eragiten dute medikuen erabakietan.

Bankuek beren etekinak handitzeko zorpean ito dituzten bezala erakunde publikoak, antzeko logika darabil farmaindustriak: osasunaren diru gutzia niretzako. Osasuna horrela ulerturik, erremedioen eta tratamenduen fakturazioa bihurtu da helburu nagusi, ez herritarren ongizatea.

**Merkeena-zaharrena denean onena**

Irabazkiak handitzeko estrategia eta taktika ugari dituzte multinazionalak. Botiketan, zahartu direlako merke geratu diren asko merkatutik kentzeaz gain, gaitz bakoitzaren-tzako ez eraginkorrenak baina garestienak sustatzen dituzte. François Pestyk Bobignyn aurkeztutako “*Efficiencie des médicaments de l’hypertension*” komunikazioa argigarria suertatzen da honetan.

Orain daukan ikuspegi kritikora iritsi aurretik hain juxtu hipertentsioarentzako botiken arloko salmenta-buru izana den Pestyk demostratu du nolaz –Interneten dago agiria, frantsesez– eraginkortasun frogatuena daukaten erremedioak direla merkeenak... eta medikuek gutxien errezetatzen dituztenak; aldiz, garestienak eta onurak aski erakutsi ez dituztenak dira gehien gomendatu eta kontsumituak. Milioi askoko galerak dagizkio honek osasun sistema publikoari. Baina behin marketin sistema abian jarri ostean, zeinek eta nola lortu medikuen eta gaixoen beren jokabidea aldatzea?

Etienne Foisset mediku gazteak azaldu zuen medikuen bulegoetan goizero ikusten diren bisitatzailerek zer nolako garrantzia daukaten botiken erabakiotan. “*Étude de l’impact de la visite médicale sur la qualité des prescriptions des medecins generalistes bretons*” izeneko bere doktorego tesia laburbildu zuen. Frantsesez dakiten medikuek leitu beharko lukete, Interneten daukate doan.

Foisset, ehundik gora medikuren artean azterketa eginik, ondoriootara iritsi da: bisitariok hartzen minutu gehien pasatzen dituzten medikuek ematen dute minutu gutxien gaixo bakoitzarekin, leitzen dute gehien doako prentsa medikua (multinazionalen publizitatez pagatua), gutxien leitzen pagatuzko prentsa mediku independentea, eta horiek berak dira botika gehien agintzen dutenak eta gainera batez beste garestienak. Harrigarria bezain egia.

**Marc Jamouille: Laugarren mailako prebentzioa**

Marc Jamouille mediku belgikarrak definiturik, munduan zabaldua dago frantsesez *prevention quaternaire* deitua. Bobignyko jardunaldietan hark egin bezala azaltzea merezi du: gero eta gehiago herritarrak prebentzioa behar duela gehiegizko osasungintzak ezarritako medikalizaziotik babesteko.

Lehen prebentzioa da gaixotasunen kausak ebiltzea; txertoekin, esaterako. Bigarrena, gaixotasuna garaiz harrapatuta larriagotzea eragozte. Hirugarren mailakoa, gaixotasun batek larri edo kronikoa izateagatik sortu ditzakeen ondorioak saihestea.

Baina gizartea gehiegizko medikalizazio, diagnostikatze eta tratamenduen gurpilean erori denean, herritarraren osasun onak eskatzen du laugarren mailako prebentzioa, kuarternarioa, Jamouillek honela definitu duena: “Gehiegizko medikalizazio arriskuan dagoen pertsona edo populazioa identifikatu, medikuntzaren esku-hartze inbasibotatik babestu eta proposatzea zainketa eta tratamendu etikoki onargarriak”.

Hortxe kokatzen da farmaindustriaren eta mediku onen arteko borrokagunea. Medikua ona osasuntsu dagoen herritarrak osasuntsu jarrai dezan saiatzen da. Osasungintzako sos guztiak berentzat nahi dituzten multinazionalak konbentzitu nahi dute osasun on hori itxurazkoa duela, gaixotasuna garatzen ari dela barruan. Denok hil behar dugula ahantzarazita.



**Produkto ekologikoen sorta zabalena**

**ekodenda ekia**

**ON LINE DENDA**  
[www.productosecologicosnavarra.com](http://www.productosecologicosnavarra.com)

- ★ Fruituak eta barazkiak
- ★ Kontserbak
- ★ Ardo, sagardoa...
- ★ Haurren txokoa
- ★ Kosmetika naturala

Fuente del Hierro 4, Iruñea ☎ 948 173 150 · Kaleberri 2, Berriozar ☎ 948 773 325 · [www.ekodendaekia.com](http://www.ekodendaekia.com)

## HIPER-MEDIKALIZAZIOA

PINTEU / FORMINDEP



Marrazkiaren tituluak dio: "Farmaziako industriak medikuen gain eragin ikusezinak lantzen ditu". Pilula barruan (fonendoa ez gaixoari baina pilulari jarririk) dagoen medikuari galdetzen dio gaixoak: "Larria al da, doktore?".

### Knock doktoreak arrazoi

Bobignyko jardunaldien tituluak iradokitzen duenez ("Surmedicalisation, surdiagnostique, surtraitements?") botika gehiegi eta garestiegi kontsumitzetik askoz harago doa osasunaren gaineko manipulazioa.

Prostata eta bularreko kancerren prebentzioak bezala balizko hiperkolesterolemiarekiko zabaldu den paranoiak eta beste adibide askok erakusten dute gaixotasunen merkatua zabaltzean datzala gakoa farmaindustriaren-tzako.

Gaixoaren eta osasuntsuaren arteko marra ezabatuta, 1923an Jules Romainsek asmatu Knock doktoreak esaten zuen moduan (*Knock ou le Triomphe de la médecine* antzerkian) inor ez dago sano, osasun oneko gizakia da gaixo dagoela oraindik ohartu ez dena. Gaixotasuna zabaldu da gaixotzeko arriskura, hortik berriro zabalduz tratamenduan jartzeko gaixotzeko arriskura hurbiltzen ari direnak. Horretarako analitikan mugak aldatu behar baldin badira, aldatu eta listo, galdetu zure medikuari zer gertatu den kolesterol edo tentsioarenekin bezala beste hainbesterekin azken urteotan.

*Disease mongering* deitzen zaio teknikari, *Pharmacritique* blog funtsezkoa animatzen duen Elena Pasca filosofoak azaldua du, beste askorekin batera. Sexualitatearen funtzioak medikalizatu dira. Haur bihurriak edo irakaslea zozoegia dutelako soberan mugitzen direnak hiperaktibotzat diagnostikatzen dira, eta medikalizatzen: AEBetan aspaldi hasi zen hiperaktibitate epidemia Euskal Herrian urteotan ari da zabaltzen.

Kolesterolaren kasuan... kazetari honek esanik Euskal Herrian zein seriozki begiraten dien mundu guztiak bi kolesterol famatuen arrastoei, inguruko medikuak harritzen ziren. Kolesterola da, beste ezaugarri asko bezala, medikuak pertsonaren beste osagaiekin batera aztertu behar duena, sekula ez bakarka. Horrela ez egiteagatik, behar ez duen jende asko ari da kolesterolarentzako botika hartzen, honek berak eragin ditzakeen kalteekin alderatuz gero batere interesgarria ez dena. Diru galera handia izateaz gain gizartearentzako.

### Diru publikoa ondo erabili

Bobignyko biltzarrean arduradunetakoa zen Jean Claude Salomon doktoreak argi adierazi zuen: "Ez dugu erori behar murrizketa ekonomikoak ezarri nahi dituztenen zepoan. Diru publikoak diagnostiko, botika eta

▶ Elikagai Biologikoak  
 ▶ Osagai Naturalak  
 ▶ Kontsulta Naturista  
 ▶ TNDR Masajea  
 ▶ Meditazioa · Yoga

Kardaberaz, 43 · 20120 HERNANI  
 © 943 555 710 · masustaekodenda.wordpress.com

**LUA**arkitektoak

hirigintza  
 hirigintza aholkularitza  
 udal planak  
 urbanizazioak  
 periferazioak  
 balorazioak  
 etxebizitza proiektuak  
 birgaitzeak  
 barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña  
 Tel 948 13 26 97  
 lua@luark.com

**ESKATU  
 PUBLIZITATEA  
 EUSKARAZ**

© 943 371 545  
[www.argia.com/tarifak](http://www.argia.com/tarifak)

**Botika saltzaileekin minutu gehien ematen dituzten medikuak dira gaixoekin minutu gutxien pasatu, prentsa mediku pagatuzkoa gutxien leitu, botikak gehien agindu eta gainera garestienak errezetetzen dituztenak**

tratamendu handiegietan xahutzen direla salatzen dugunean gu ez gara eskatzen ari diruok gutxitzea, diruak ondo erabiltzea baizik”.

Gehiegizko medikalizazioak ifrentzu baitauka gutxiezigizkoa. Neoliberalismoarekin gizarte barruko etenak eta ezberdintasunak ugaritzeko joera bera ari da gertatzen osasungintzan, pribatizazioa indartzea barne. Gero eta botika sofistikuagoak eskaintzen zaizkie batzuei, baina aldi berean herritar asko, funtsean txiroenak eta adinean aurrera joandakok, oinarritzko artapenik gabe uzten dira bazterrean. Pobreziak jendeen bizi kalitatean eta baita bizirauteko itxaropenean ere eragina dauka, eta asko dira hori gure begien aurrean gertatzen dela adierazten duten ikerlan estatistikoak.

Diru publikoa etekin pribatuetara bideratzeko logika neoliberal beste honetan ere nabari da: gero eta tratamendu garestiagoak batzuentzako eta aldi berean gero eta mediku gutxiago, gero eta minutu gutxiagoko bisitak, gero eta diru gutxiago artatze pertsonalizaturako. Sos guztiak diagnostiko garestitan, tratamendu garestitan, botika garestitan doaz... nahiz eta horien eragin-kortasuna demostratu gabe egon. Hau baita multinazionalak lortutako garaipen funtsezkoenetakoa.

### Onartu akuri izatea... ala akabatu hadi

Bobignyko biltzarrean azken hizlarietakoa Nicole Delepine izan zen. Peditra eta onkologoa, besteren artean publikatuak dauzka “*La face cachée des médicaments*” (Botiken alde ezkutua) eta “*Le cancer, un fleau qui rapporte*” (Kantzerra, etekin handiko negozioa). Berotzen da eta berotzen du Delepinek.

Hipokratesen zina (“Lehenbizi, kalterik ez egitea”) ahazturik mediku morroi bihurtu dela gaurkoa. Akulturazio estrategien mende: hiru urte baino zaharragoa dena ahaztu dugu! 1990 arte erabilitako terapiak baztertu dira, baita eraginkorrak ere. Medikuntza salgai dago. Burtsan kotizatzen da. Gainera, Frantzia 2017an Gizarte Segurantzak bere monopolioa galduko du.

Multinazionalak ezarri dituzten protokoloen aurrean bakarrik daude bai medikua eta bai gaixoa. Azken urteotan minbizientzako baina baita gaixotasun immunitario askorentzako erabiltzen diren terapia berri ugari ez daude nahikoa frogatuta, arrisku handiak daukate, farmaindustriak lortu du horiek pasaraztea lehen botikak merkaturatzeko zeuden kontrol eta testak bortxatuta.

Ororen buru, zioen Delepinek, bere eskuetara iristen diren gaixo askori osasun sistemak dilema beldurgarria eskaintzen dio aukeran: edo onartzen duzu nik eskaintako tratamenduaren giza-akuri izatea, edo bazterrean utziko zaitut abandonaturik, eutanasia faktikoa.

“Hain beltz bukatu behar al duk artikulua” kexa liteke irakurlea. Ez arrazoirik gabe. Bada egia on bat ere: badira mediku kritikoak egoera hau salatzen ari direnak. ARGIAN horien berri ere eman eta emango dugu. Bobignyn esan zituztenak, Interneten azaldu ahala, webgunean laburbilduko ditugu. ■



Ernio-bea - 4 · Billabona 20150 · (Gipuzkoa)  
☎ 94 369 48 70 · info@kinpiraekodenda.com



- GORPUTZEKO TOXINEN GARBIKETA
- DIGESTIO ARAZOAK
- KOLON HIDROTERAPIA
- DETOX DIETA PERTSONALIZATUAK
- GORPUTZAREN OREKATZE OROKORRA

Legazpi 4 1. Ezk · DONOSTIA · ☎ 943 441 650  
Pablo Gorosabel 6 1. · TOLOSA · ☎ 680 40 76 39  
info@zubidonosti.com · www.zubidonosti.com